

## Goiz aparta Kurtzeberri mendira eginiko irteeran

2012/03/14

MUko Kirol Zerbitzuaren eskutik, eta MUko I. mendi astearen egitarau barnean, Kurtzeberrira mendi irteera izan genuen astearte goizean. Aretxabaletako mendia da Kurtzeberri eta 1.155m inguruko garaiera du.

HUHEZI-n elkartu eta Mendiola auzora kotxez igo ondoren, goiz atsegin eta lasaiaz gozatu genuen. Eguraldi bikaina izan genuen mendiaz gozatzeko eta goizean behe-laino artean hasi arren txangoa, eguzkiaz gozatzeko aukera izan genuen.

Eguraldia lagun, menditik jaisteko penarekin bueltatu ginen kotxera, baina gozatu ederra hartu genuen, paisaia zoragarriez inguratuta ibili ginelako eta inguruko mendien bista ikaragarriak izan genituelako.

Primeran pasa genuen, argazki politak ateraz (ikusi hemen)

